



CEIP MIRIBILLA HLHI  
C/ VITORIA-GASTEIZ 5  
48003-BILBAO-BIZKAIA



Europar Batasuna  
Europako Gizarte Funtza  
“EGFak etorkizunean inbertitzen du”

Tel. 944166820/fax944162073

015360aa@hezkuntza.net

# CEIP MIRIBILLA HLHI

## Ikastetxearen

## Urteko Memoria



# 2022-2023

# Aurkibidea

<b>1. Sarrera</b>	<b>1</b>
<b>2. Helburu orokorren ebaluazioa</b>	<b>2</b>
2.1- Ikaskuntza-prozesuen ebaluazioa	
<b>3. Irakaskuntza-jardueren programaren ebaluazioa</b>	<b>14</b>
3.1. Ohiko irakaskuntza-jardueren programaren ebaluazioa	
3.1.1. Antolaketa eta funtzionamenduaren aspektuak	
3.1.2. Esperientziak, programak eta proiektuak	
3.1.3. Prestakuntza eta garapen profesionala	
3.1.4. Irakasleriaren koordinazioa	
<b>4. Eskolaz kanpoko jardueren planaren ebaluazioa.</b>	<b>23</b>
<b>5. Eskolako zerbitzuak</b>	<b>28</b>
<b>6. Jantokia</b>	<b>29</b>
<b>7. IUPren garapenaren jarraipenaren ebaluazioa</b>	<b>33</b>
<b>8. Hizkuntza indartzeko proiektuaren memoria</b>	<b>34</b>
<b>9. Ekonomia kudeaketarako plana</b>	<b>35</b>
<b>10. Hezkuntza Premia Berezia</b>	<b>38</b>
<b>11. Higiene programa</b>	<b>45</b>
<b>12. Miribillako Gurasoen memoria</b>	<b>48</b>

# **1. SARRERA**

Ikasturte honetan zuzendaritza taldea berrantolatu egin da.

Zuzendaria: Reyes Tejero

Ikasketaburua: Elixabet Etxebarria

Idazkaria: Asun Zorrilla

Zuzendaritza talde honek zuzendaritzarako proiektua burutzeko konpromezua hartu zuen ikuskariarekin eta bete egin du.

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua ikastetxearen nortasun-ezaugarriak dira, eta nahi duen eta garatzen duen hezkuntza baldintza jakin batzuetan adierazten du. Hori dela eta, balioak, helburuak eta jarduteko lehentasunak hartzen ditu kontuan, curriculumaren alderdietara ez ezik, kulturaren ikuspegitik ikastetxea kokatuta dagoen eremuaren elementu dinamizatzailerik bihurtzen duten alderdietara ere mugatuta.

Helburu argi eta zehatz batzuk lortzera bideratuta dago proiektu orok bezala, bere jarduna justifikatzen du eta bertan esku hartzen duten zuzeneko eragileek ezagutza osoa oinarri hartuta egiten da, hala nola ikasleak, familiak eta bizi diren ingurunea eta irakasleak.

Arlo curricularrari dagokionez, gure helbururik nagusienak etapa guztietan emaitza akademikoak hobetzea, elkarbizitzan lan egitea, eta familiekiko harremanak sendotzea izan dira. Komunitate osoaren ongizate emozionala lortzea da gure helburua.

Ikasturtea aurrera eramateko, Miribilla eskolan ikasturte osoan zehar ikasleen joan etorri ugari egoten da. Gure eskolako ezaugarri nagusienetarikoa aniztasuna da. Hori dela eta, HIPI portzentaia ikasturte honetan zehar 1,5 gehiagorekin indartu egin da.

Ikasturte honetan zehar, AMPAren laguntzarekin eskolaz kanpoko ekintzak aurrera egin dira, Musika (Etorkizuna musikatan elkartarekin) 1. mailatik 6. mailara, liburutegia ostegunetan eta guraso zein ikasleentzako digitalizazioari buruzko ikastaroak landu dira ELKARTENET erakundearekin batera.

Guraso Elkarteak ELKARTENETekin batera lagundu du gurasoei prestakuntza ematen, bai eta berreskuratutako ordenagailuak familien artean saltzen ere, prezio sinbolikoan, teknologia berrietara sartzetik ez duten familiek eskolan landutako edukien jarraipena egiteko beharrezko ekipoak etxean izan ditzaten bermatzeko.

Esan behar da Guraso-eskola antolatu dela arrakasta eskasarekin eta Haur Hezkuntzako gurasoekin, hurrengo ikasturtean birplanteatuko dugu irailatik hasia Lehen Hezkuntzako gurasoekin.

## **2.HELBURU OROKORRAK**

### **LEHEN HEZKUNTZA**

#### **1.-CURRICULUM PROIEKTUA (LOMLOE) ZABALTZEA ETA METODOLOGIA ILDOA ADOSTEA, DIGITALIZAZIO PROIEKTUA BARNE.**

Azken urte hauetan gure ildo metodologikoa aldatzen joan da HEZIBERRlari lotuta. Dekretu Berriak ikasleen irteera profila berformulatzen du; beraz, Curriculum Berrian oinarrituko gara.

#### **2.-HEZKIDETZA PLANAREN BITARTEZ, ELKARBIZITZA, ERRESPETUA, BERDINTASUNA ETA ANIZTASUNAREN TRATAERA SUSTATZEN JARRAITZEA, ZAINZTA EMOZIONALA BARNE.**

(Arreta berezia eskaintzea ikasleen ongizate emozionalari , zailtasunei aurre egiteko eta modu positiboan gainditzeko. HEZKIDETZA funtsezkoa da pertsonen garapena errazteko).

##### **2.1. Hezkidetza Batzordea martxan jarri da BAT taldea barne.**

##### **2.2. Emozioak lantzeko jarduerak tutoretza planean txertatu eta gelan martxan jarri:**

Batzuk martxan jarri dira baina beste batzuk ez, planteatzen diren jarduera batzuk ez daudelako gure zentroaren errealitatera egokituta.

**HOBETZEKO PROPOSAMENAK:** Tutoretzako saioan egin beharreko ekintzak gelara eta testuingurura egokitutakoak izan beharko dira.

##### **2.3. Ikasleen Harrera Plana berrikusi:**

##### **2.4. Hezkidetza Planeko ekimenak gauzatu:**

Jarduera hauek aurrera eraman dira eta ondo atera dira, baina aurretik denbora gehiagorekin prestatu beharko dira.

**-Azaroak 25: Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna.**

**-Martxoak 8: Emakume langileen eguna.**

**-Ziberbizikidetza aniztasunean.**

**-Hizkuntza ez-sexista erabili.**

**2.7. Festen dinamizazioa burutu, errespetua eta berdintasuna bermatzeko:** Abesti matxista zein sexistak ekiditu dira eta errespetuz eta berdintasunez jokatu dute ikasleek, guztiak parte-hartuz.

**2.8. Aniztasuna eta behar bereziei arreta emateko irakasle taldearen koordinazio eraginkorra indartu:**

Behar izandako koordinazioa egon da ikasleen aniztasuna bermatzeko.

Egindako koordinazioak ondo egon dira baina baldin eta espezifikoak gelan sartzen badira, beti ez da horrela gertatzen eta hor gabezia bat ikusi dugu.

### **HOBETZEKO PROPOSAMENA**

-Ondo legoke ikasturte osoan zehar, hamabostero edo hilero, beharren arabera, gela bakoitzean sartzen diren espezialistak tutorearekin elkartzeko eguna adostea.

### **3-HIZKUNTZA KONPENTZIA INDARTZEA ETA BULTZATZEA, IRAKURKETA-IDAZKETA, ULERMENA-IDAZMENA ETA MINTZAMENA LANDUZ, BERDINEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA BERMATZEKO.**

(Eskolan dugun errealitate linguistikoa abiapuntutzat hartuta, euskararen erabilerarako estrategiak bultzatzea).

**3.1. Eskolan dugun errealitate linguistikoa abiapuntutzat hartuta, euskararen erabilerarako eskolan markatutako estrategiak bultzatu:**

Egunero erabiltzen diran estrategiak aproposak izan arren, euskara bultzatzeko egin diran ekintzen emaitzak ez dira izan espero genituenak.

Euskara indartzeko ekintzak egin dira (euskararen eguna, euskaraldia, taloa, herri kirolak) baina emaitzak ez dira nahi bezalakoak izan. Hala ere, horretan jarraituko dugu.

**3.2. Irakurketa Plana berrikusi:**

Lehenengo zikloan egindako ekintzak, aurkezpenak, jolasak, abestiak...interesgarriak eta egokiak izan dira.

Liburutegira jaitsi gara eta auzoko liburutegira joan dira idazlea ezagutzera. Astero ulermen ariketak egin dira, bai ahozkoaz zein idatzizkoak, gainera, hiruhileko guztietan liburu desberdin bat irakurri da, bai erdaraz zein euskaraz.

**HOBETZEKO PROPOSAMENAK:** Hobetzeko, liburutegiko erabilera areagotu beharko litzateke eta ikasleak irakurketara gehiago motibatu. Horrez gain, ondo egongo litzateke ikasleek haien interesen arabera liburua aukeratu ahal izatea haien arteko irakurketa areagotu ahal izateko.

### **3.3. AHOZKO ZEIN IDATZIZKO ULERMENA ETA ADIERAZPENA**

Era bertikalean eta zientziekin lotuta testu motak lantzen dira eta horiekin batera dagozkien ortografia, gramatika zein egiturak landuko dira. Eskema mentalak betetzen dira ikastunitateekin:

Egin eta egokitu dira egoera bakoitzera.

### **3.4 MINTZAMENA**

Eskema mentalen bidez egunero ahozko adierazpena landuko da.

Testuek euskara, zientziak eta matematika barne hartzen dituzten jarduerak (ulermenak, adierazpenak, laburpenak...) ahoz azalduko dira:

Ikasleek duten hizkuntza mailak, ez du ahalbidetzen ulermen adierazpen egokia. Hala ere, batzuk saiatzen dira.

**HOBETZEKO PROPOSAMENAK:** hainbat errutinak erabiliz ahozko adierazmena areagotzeko:

-Astelehenetan asteburuaren kontaketa

-Hamabostero, Mintzodromo bat prestatu gai baten inguruan mintzatzeko.

-Dadoen jokoa; irudiak erabiliz, istorioak kontatzea.

### **3.5 BANAKAKO IRAKURKETA.**

Ahopeko irakurketa eta era librean ordu erdia astero, gelako ordutegian agertuko da.

Taldeko irakurketa: ikasturtean zehar 3 liburu irakurriko dituzte euskera saioan eta gaztelaniako saioan.

Mailari dagokion testu mota eta zientzietako ikastunitatearekin lotuta egingo da.

**Irakurriko diren liburuak berriztu:**

Maila eta taldearen arabera beharrezkoak izan diran egokitzapenak egin dira aurrera eramanez.

Gela bakoitzaren arabera landu da. Batzuetan astero eta beste batzuetan egiten den arren, ez da astero egin.

### **3.6 IKASTUNITATEAREN HASIERAN UNITATEARI DAGOKION LEXIKOA AZTERTU.**

Bai, lexikoa lantzen da; baina ez beti gaiaren hasieran, batzuetan bitartean.

**HOBETZEKO PROPOSAMENAK:** ondo legoke ikas-unitate bakoitzaren hasieran dagokion lexikoa lantzea, eta posiblea balitz, beste arloetan ere erabiltzea.

### **3.7 AHOZKO PRODUKZIOAK**

Ez dugu egun zehatz batean egiten ezta saio konkretu batean ere. Hala ere, egunean zehar saio ezberdinetan lantzen dugu, bai aurrekoaren laburpena egiten, bai galdera eta erantzunen bitartez, aurkezpenak egiten...

**HOBETZEKO PROPOSAMENAK:**

-Zientzietako gai bakoitzaren bukaeran ahozko laburpen txiki bat egin.

-Komenigarria litzateke gutxienez aurkezpenen bat egitea hilero, hizkuntzaren jariotasuna hobetzeko.

### **3.8 DIKTAKETA**

#### **Ahoskera, idazkera, ortografia, ahozko eta idatzizko ulermena eta hiztegia**

1.mailan ez da egin. 2. eta 3.mailetan astero egin da.

4., 5. eta 6.mailetan astero egiten da, batez ere gaztelainako eta hizkuntza saioetan. Ingelesean berriz, hitzen diktaketak egiten dira.

### **3.9 EGUNEROKOTASUNERAKO ULERMENA**

#### **Ekintza honen helburua bizitzarako beharrezkoak diren informazioak ulertzea eta interpretatzea.**

Bai egiten da. Batez ere haien egunerakotasunean erabilgarriak diren testuak lantzen dira; supermerkatuko kartelak, zinemarako kartelera, grafikoak, kaleko mapak, ... . Nahiz eta landu, ikasleek ez dute oinarrizko hiztegia guztiz menperatzen.

#### **HOBETZEKO PROPOSAMENAK:**

- Oinarrizko hiztegia lantzea ulermena hobetzeko.:
- Gelan agertzen diren hitz ezezagunen hiztegia sortu.
- Gai bakoitzean landuko den hiztegiaren muralak egin.

### **3.10 IKT**

Astean zehar informatikako saio bat zehaztuta dago 4. mailan, non tresna berriak ezagutzeko eta zein motatako erabilerak eman ahal dizkiegun aztertzen den Kahoot, liveworksheets, classroom, drive, power point; Word,. 5. eta 6. mailetan berriz, tresna hauek egunerokotasunean erabiltzen dira, ikasleen aurrezagutzak zeintzuk diren ikusteko (kahoot), gelako edukiak lantzeko eta finkatzeko (liveworksheets, classroom). Egindako lanak partekatzeko ere, hainbat tresnaren erabilera bultzatzen da (drive, classroom, eskolako korreoa).

#### **HOBETZEKO PROPOSAMENAK:**

-Lehen zikloan tresna hauek ikasleei aurkezten joatea, 4.mailatik aurrera modu egokian erabili ahal izateko. Horretaz gain, arlo eta maila guztietan erabiltzea ikasleek ondo barnera dezaten.

### **3.11 EBALUAZIOA**

HASIERAKOA: Arlo guztietako gutxienezko oinarrizko jakintzak

HIRUHILABETERO: Gaiei dagozkien oinarrizko jakintzak

Hasierako ebaluazioa oinarria izan da ikasturtean zehar jarraitzeko.

Ikasturtearen hasieran, hasierako ebaluaketa txostenak edo frogak egiten dizkiegu ikasleei, modu horretan, euren ezagutzak, indarguneak eta ahuleziak identifika ditzazkegu, eta era berean, datu horiek abiapuntutzat hartuta, ikasturtea prestatzeko aukera paregabea dugu, maila bakoitzari dagozkion helburuak lortu behar direla ahaztu gabe.

Ebaluazioa jarraia izaten da, eta hiruhilekoaren bukaeran ikasleen lorpenak baloratu egiten dira, eta txosten batean jasotzen dira (ebaluazio akta, boletinak). Ikasturte bukaeran berriz, urte osoan egindako lana baloratu egiten da, eta ikasle bakoitzaren lorpenak aztertzen dira, ezarritako helburuak kontutan harturik. Horretarako gelako memoria, banakako txostenak, berreskuratze txostenak, boletinak, PIRE-ak,... betetzen ditugu.

#### **4.HEZKUNTZA LIDERGOAREN HELBURUAREN BARRUAN, IKASGELAN LIDERGO DIDAKTIKOA BALIATUKO DUEN IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA ERAGINKORRA LORTZEA.**

##### **Irakasleen formakuntza:**

Prestakuntza digitalari dagokionez, lan egiteko tresna ezberdinak ezagutzeko aukera izan dugu; canva, genially, vocaroo, wordwall, pantaila irudiak egitekoak,... gure egunerokotasunean erabiltzeko oso baliagarriak izan daitezkeenak.

##### **HOBETZEKO PROPOSAMENAK:**

Eskainitako formakuntza, eskolako errealitateari zein beharrei egokitutako formakuntza bat izan behar du, non egunerokotasunean erabiliko ditugun tresnen erabilera egokia erakusten zaigun.

Bestetik, etapa desberdinetara egokituta izatea komenigarria ikusten da.

##### **Curriculo berria**

Currículo berriari dagokionez, BeAtarrak arduratu dira urteko programazioa egiten.

##### **Ikastunitateak eta ikas-egoerak**

Ez dira egin, hurrengo ikasturtean egiteko asmoa baita.

**Eskolako ikasmaterialak berrikustea** izango da hurrengo ikasturtearen erronka.

**Lehen sorospen** ikastaroa eta ahotsaren hezkuntzarako formakuntza egin dira.



## **BIZIKASI EKIMENEAN KOKATUTA, EMOZIOEN ARLOA LANTZEA**

Harrerari lotutako alderdi guztiak bereziki zaindu , Ikasleekin lotura afektiboa sendoteko eta eskolako kidetza-sentimendua sustatzeko, ikasleek erreferentziazko irakasleekin lotura positiboa indartuz..

<b>8AZTERTUTAKO ESPARRUA ÁMBITO O ASPECTO ANALIZADO</b>	<b>EGOERAREN AZTERKETA. ETA ZERGATIEN LABURPENA ANÁLISIS DE LA SITUACIÓN Y SÍNTESIS DE LAS CAUSAS</b>	<b>HOBEKUNTZA ETA JARRAIPENERAKO PROSAMENAK PROPUESTAS DE MEJORA CONTINUACIÓN</b>
<p><b>TUTORETZAK LH</b></p> <p>Bizikidetzarako Hezkuntzan, hiru mailatan lan egin da:</p> <p>Ezagutzari dagokionez, bi mailatako gogoeta bultzatuko da</p> <p>Oinarriei buruzko ezagutza bizikidetza ona lortzeko.</p> <p>Geure buruarekiko eta gainerakoekiko jarrerak; nola ikusten ditugun gure burua eta gainerakoenak.</p> <p>Afektibitateari dagokionez: Emozioak, enpatia eta abar ongi eta egoki adierazteko baliabideak eskuratzea.</p> <p>Jokabideari dagokionez: Bizikidetza ona</p>	<p>Gaiaren inguruan hitz egin eta hausnartu egin da gure artean dauden ideiak eta ikuspegi desberdinak trukatzeko: besteen iritzia onartzen eta entzumen baikorra erabiliz.</p> <p>Harreman baikorrak taldearen barruan indartu egin dira eta honen ondorioz, lan giroa hobetu da.</p> <p>Norbaitek bere bizipenak kontatu dituen edo iritzia aurkestu duen batera errespetua eta enpatia landu egin da.</p>	<p>Kontuan hartuz hurrengo ikasturtea tutoretzak diseinatutako unitateak “Bizikasin-n” erreferentziaz hartuz landuko dira, 2022/23 ikasturterako planteatzen dugu:</p> <p>Unitate bakoitzean sekuentziaz agertzen diren jardura guztiak burutu ahalk izateko asteko arratsalde bat erabiltzea.</p> <p>Denbora gordetzea ikasleekin bere arazoei buruz hitz egiteko.</p>

<p>lortzeko beharrezkoak diren trebeziak bultzatzea eta haietan entrenatzea; gauzak nola egin liteezken.</p> <p>Eduki multzo bakoitza bukatuta, galdeketa bat egindako jardueren egokitzearen gainean osatzen da, 1eko 10era balioesten da:</p> <p>Ikasleen parte-hartze maila.</p> <p>Taldearen giroa.</p> <p>Komunikazioa eta entzutea.</p> <p>Jardueren egokitzea.</p> <p>Helburuen maila.</p> <p>Alderdi positiboak eta zailtasunak.</p> <p>Hobekuntza proposamenak.</p>	<p>Lankidetzaren oinarritutako talde lana oso era egokian bultzatu egin da eta gelako giroa hobetzeko asmoz. ikasleak irtenbideak proposatu egin dira gatazkak konpontzeko.</p> <p>Ziklo bakoitzeko jasotako ebaluazioetan oso positiboki baloratzen da:</p> <p>Parte hartzea eta ikasleen jarrera tutoretza saioetan .</p> <p>Berdinen arteko lankidetzaren garapena..</p> <p>Gatazka erabakian alternativa baketsua ekarpena.</p> <p>Egoera zailen aurrean autokontrolerako orientabideak.</p>	
--	--	--

## **HAUR HEZKUNTZA**

### **ADIMEN EMOZIONALA**

-Programaturik genituen blokeak aurrera eraman dira.

-Mailaka landu diren blokeak, hurrengo hauek izan dira:

1. KONTZIENTZIA EMOZIONALA lehenengo hiru hilabetez zehar.
2. TREBETASUN SOZIOEMOZIONALAK bigarren hiruhilabetez zehar
3. GATAZKEN EBAZPENAK

Maila bakoitzak, aurretiaz zikloan adostu genituen programaketak burutu izan ditu eta aurrera eraman dira emaitza positiboa izan delarik. Gelaka dagokion ebaluaketa orokorra egin izan dugu eta baita umeko, erregistro orrien bidez.

## **LEHEN HEZKUNTZA**

# **1. ZIKLOA**

### **BIZIKASI EKIMENEAN KOKATUTA, EMOZIOEN ARLOA LANDU**

Elkarbizitzari lotutako alderdi guztiak bereziki zainduz, ikasleekin lotura afektiboa sendotu eta eskolako kide-tza-sentimendua sustatu, ikasleek erreferentziazko irakasleekin lotura positiboa indartzeko...

- **TUTORETZA**

Gela guztietan, zehaztuta dauden tutoretza saioak astean behin egiten dira. Adimen emozionala lantzeko jarduerak lantzen dira eta horren ostean ekintzen balorazioa egiten da.

Honetaz gain, eguneroko elkarbizitzan sortu daitezkeen arazoei erantzuna emateko, momentuko tutoretzak egiten dira.

- **BIZIKIDETZARAKO KONPETENTZIA**

Bizikasi programak proposatutako hurrengo gaiak tutoretza saioetan landu dira:

BIZIKASI programak eskaintzen dituen ekintzak:

- o Ni eta nire taldea
- o Gure arteko harremanak
- o Eta harremanak onak ez direnean
- o Ondo konpontzen gara
- o BAT kanpaina:ingurune segururako konpromisoa

BIZIKASI programa

Autoebaluazioa

- Parte hartzen du, errespetuz, dinamiketan.
- Aniztasunaren aurrean errespetua adierazten du.
- Identifikatzen ditu sentimendu eta emozio batzuk beregan.
- Identifikatzen ditu sentimendu eta emozio batzuk besteengan.
- Elkarlanean aritu da eta guztion ongizaterako konpromisoa hartu du

## **2.ZIKLOA**

### **BIZIKASI EKIMENEAN KOKATUTA, EMOZIOEN ARLOA LANDU**

Elkarbizitzari lotutako alderdi guztiak bereziki zainduz , Ikasleekin lotura afektiboa sendotu eta eskolako kide-taldea sustatu, ikasleek erreferentziazko irakasleekin lotura positiboa indartzeko...

- **TUTORETZA**

Gela guztietan, zehaztuta dauden tutoretza saioak astean behin egiten dira. Adimen emozionala lantzeko jarduerak lantzen dira eta horren ostean ekintzen balorazioa egiten da.

Honetaz gain, eguneroko elkarbizitzan sortu daitezkeen arazoei erantzuna emateko, momentuko tutoretzak egiten dira.

- **BIZIKIDETZARAKO KONPETENTZIA**

Bizikasi programako hainbat gai landu dira fitxen, bideoen eta jokoen bidez. Ikasgelan sortutako hainbat egoeraren arabera egin dira.

- Ni eta nire taldea
- Gure arteko harremanak
- Eta harremanak onak ez direnean
- Ondo konpontzen gara.

## 2.1-Ikaskuntza-prozesuen ebaluazioa

### **HAUR HEZKUNTZA- METODOLOGIA**

#### HIZKUNTZA KONPETENTZIA

-“**Comunicarnos**” dokumentuan oinarriturik, ikasturte hasieran, tutoreok programa osoa irakurri ondoren eta bertan adierazitakoarekin zalantzak komunean jarri eta gero, akordio batzuetara heldu ginen. Mailaka, bertako material interaktiboa jeitsi genuen, “Siembra estrellas” web orrialdetik hain zuzen.

-2019-2020 ikasturteko hasita, aurrera eramaten hasi garen akordioak, hurrengo hauek izan dira 2022/2023 ikasturtean ere:

-Praxiak, kontzientzia lexiko eta silabikoa, entzuteko oroimena,...

Horretaz gain, egunerokotasunean erabiltzen diren baliabideak ere oso garrantzituak dira: gelako liburutegia, eskolako liburutegia, edota edozein txokotan lantzen den edukia hizkuntza konpetentziarekin lotuta dago. Adibidez matematika, IKT...

#### GELAKO LIBURUTEGIA

-Mota desberdinetako testu formatuak erabili egin dira gelako liburutegia osatzeko; ipuinak, liburuak, aldizkaria eta abar... Eskolako liburutegitik hartutako liburuak zein etxetik ekarritakoekin eratu da, baita irakasleok sortutako liburuxka ezberdinekin ere .

#### ESKOLAKO LIBURUTEGIA

-Eskolako liburutegiaren erabilpena, mailaren arabera izan da.

-Gure ordutegian, liburutegia noiz erabili mailaka finkatuta izateak, errutina markatzerako orduan oso lagungarria izan zaigu.

#### MATEMATIKA KONPETENTZIA

Metodologia aldetik, ez dugu berrikuntzarik egin baina ildo beretik jarraitu dugu.

-Hurrengo blokeak landu izan dira era globalizatuan eta ikasturtean zehar. Dagokion mailaren eskakizunaren arabera eraman dira aurrera, beti ere, etenak ekarri digunak kontutan izanda .

- 1) Pentsamendu logiko-matematikoa.
- 2) Zenbakikuntza eta kalkulua
- 3) Geometria
- 4) Neurriak
- 5) Estatistika

#### TXIKILINUX PROGRAMA

Pasa den ikasturtean hasi genuen proiektuari jarripena eman zaio aurten. HHko 5 urteko gelan landu dituzte programaren arlo ezberdinak, LHra pasatzean prest egoteko edozein dinamika aurrera eraman ahal izateko.

#### **ESKOLA FAMILIARTEKO HARREMANAK (PARTE HARTZEA ETA LANKIDETZA)**

2022-23 Ikasturte honetan ere, eskola barruan bai egin dira ekintzak. Gurasoak parte hartu dute jai desberdinetan eta hainbat ekintzetan.

### **LEHEN HEZKUNTZA- METODOLOGIA**

#### **HEZIBERRI 2020: ARAZO EGOERAN OINARRITUTAKO IKASKETA**

Egun curriculumean oinarritzko kompetentziak garatzeko printzipio metodologikoak zehazten dira. Edukiek eguneroko bizitzarekin lotura izan behar dute eta horien lanketa egoera errealetan izan behar dute abiapuntua. Irakaslea izango da ikasketa-egoerak edota – eszenatokiak diseinatu eta antolatzearen arduraduna baina, horien ebazpenean ikas-komunitate osoaren inplikazio aktiboa ezinbestekoa da. Horregatik, arazo-egoerak metodologia ikasleen oinarritzko kompetentziak bermatzeko estrategia ezin hobea da.

Arazo-egoeretan euren errealtatearekin lotura estua duen testuinguru eta arazoa aurkezten zaie ikasleei. Horri irtenbidea emateko (azken emaitza lortzeko) ikasleek jarduera anitzak eraman behar dituzte aurrea. Aurrerapauso bakoitzari esker ikasleek zeharka diziplina baitako zenbait kompetentzia landu dezakete eta, era berean, gaitasun digitala ere txertatzen da (informazioa bilatu, edukiak digitalki sortu, azken emaitza produkzio digital modura jaso...).

Errealtatean oinarritutako ikaskuntza eredua bat da, zeinetan ikasleek planifikatu, garatu eta ebaluatzen dituzten bizitzarekin zerikusia duten proiektuak. Teoria honen arabera,

ikaslea bera da bere ikaskuntza-prozesua eraikitzen duena, aurreko jakintza eta trebezietan oinarrituta, elementu berriak eskema orokorragoetan txertatuz.

- Pentsamendu kritikoa
- Komunikazioa
- Lankidetzaz

## EZAUGARRIAK

- Ikaslea da ikaskuntza prozesuaren protagonista (hainbat proiekturen artean hautatuko du).
- Taldetan lan egiten da. Beti, burbuilak mantenduz.
- Ikasleentzat esanguratsua izango da.
- Helburu hezitzailea izango du.
  1. Ikaslearen jakin-mina pizten du.
  2. Ikasleari ahotsa eta hautatzeko aukera ematen dio.
  3. XXI. mendeko gaitasunak garatzen ditu.
  4. Berrikuntza eta ikerketa sustatzen ditu.
  5. Feedback eta berrazterketa bultzatzen ditu.
  6. Amaierako produktua gizartearen arazoren bat konpontzea du helburu, eta aske, publiko eta doan eskaintzen da.

## ONURAK

Ikasleek ondorengo gaitasun eta trebetasunak garatzen dituzte:

- Lankidetzaz, burbuilak ahaztu barik.
- Proiektuen plangintza
- Komunikazioa, erabakiak hartzea eta denboraren kudeaketa
- Eskola eta errealitatea uztartzen dira.

## AUKERA ESKAINTZEN DA:

- Eskolan edo gizartean ekarpenak egiteko.
- Gizarte eta komunikazio gaitasunak garatzeko.

## ARAZO-EGOERAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZAREN INPLEMENTAZIOA

1. Egoera edo arazoa: esaldi bat edo bi, gaia edo konpondu nahi den arazoa azalduko duena.
2. Proiektuaren deskribapena eta helburua: proiektuaren helburu nagusiaren azalpen laburra eta zein neurritan erantzuten dion egoera edo arazoari.
3. Jardueraren zehaztapenak: proiektuak bete beharreko kalitate irizpideen zerrenda.
4. Arauak: proiektua garatzeko gida edo argibideak, aurreikusitako denbora eta epe motzerako helburuak barne.
5. Partaideen eta haiei egokitutako eginkizunen zerrenda.
6. Ebaluazioa: nola ebaluatuko da ikasleen jarduna? PBLn, ikaskuntza prozesu osoa eta amaierako produktua ebaluatzen dira.

## EBALUAZIOA

1. Eginkizun edo rolen esleipena.
2. Ikerketa lana.
3. Erantzukizunaren banaketa.
4. Dokumentuen azterketa sortzailea.
5. Komunikazioa, gizarte trebetasunak.

Tradizionala:

Idatzizko txostena

Ahozko aurkezpena: mapa mentalen bidez azalpenak eman

Teknologiak erabiliz: argazki edo irudiak, hormairudiak, aurkezpen elektronikoa...

## KONTROL ZERRENDA

- ✓ Ezagutza (ikerketa, informazioaren kudeaketa).
- ✓ Komunikazio trebetasuna.
- ✓ Gizarte trebetasuna.
- ✓ Trebetasun teknologikoa.
- ✓ Amaierako produktua.



## **HIZKUNTZA ETA ZIENTZIAK LANTZEKO METODOLOGIA**

**Hizkuntza** eta **zientziak** era bateratuan lantzen dira arazo egoeratan oinarrituta. Ikasleen interesak kontutan izanik, hizkuntza lanerako eta komunikaziorako tresna bat gehiago izan daiteke. Beraz, natura eta gizarteko ezagutzak esanguratasuna ematen dio hizkuntzari (komunikazioa eta kognizioa lotuz).

Hau dela eta, ikasleek bi arloetarako amankomunea den azken proiektu, produkzio...burutu beharko dute. Ikasleak azken produktua ekoiztu bitartean, hainbat estrategia eta kontzeptu berri ikasiko ditu (**informazioaren trataera, grafikoaren interpretazioa eta diseinua, lexiko berezia...**) Aprendizai batzuk zientifikoak izango dira eta beste batzuk hizkuntzari dagozkionak (**testu tipologiari dagozkionak**).

Bi arlo hauen artikulazioa ziurtatzeko arreta handiz aukeratzen da gai bakoitzaren landuko den **testu mota**.

Ikaslea testu-mota desberdinen aurrean sentsibilizatu behar dugu :

- Aniztasun testuala sistematizatu : lpuina , azalpena , iritzia , albistea...
- Maila pedagogiko desberdinak :
  - Kontestua : nork , zertarako , nozentzat ....idatzi duen
  - Aipagaia : Zer esaten da testuan . Gure kasuan natura eta gizartearen ezagutzazko gaia da. Gai hau sistematikoki lantzen da sekuentzian zehar.
  - Antolaketa : Nola dago antolatuta , nola hasi eta bukatzen da ... Modu ezberdinean egiten da testu mota bakoitzean
  - Testuratzeko - maila : Testu antolatzaileak , aditz- denborak...

Proiektu bakoitzak urrats hauek ditu :

- **Azken produkzioa zehaztu** . Ikasleei jakinaraziko zaie hizkuntzarekin egin beharko duten iharduera .**Ikasleek dakitena kanporatu** . Bi arloei buruz dakiena kanporatu. Natura eta gizartearen gaiari eta komunikazio egoerari dagokiona ere.
- **Ereduak aztertu** . Aprendizai zientifikoari lotutako iharduerak bai linguistikoari lotutakoak. Ereduak alderdi ezberdinetatik aztertzen dira : gaiari dagokionez (ulermen estategiak, informazioa jaso...), komunikazio egoerari dagokionez (igorlearen eta hartzailearen

ezaugarriak), testu antolaketari dagokionez (testuak dituen atalak, zein ordenetan...) eta testuratzeko lanak ( antolatzaileak , kohesio estrategiak ).

- **Testua ekoiztu.** Ikasleek testua ekoiztuko du ereduaren aztertutako alderdiak izanik.
- **Ebaluaketa eta zuzenketa .** Ikasleak beste ikasleen eta irakaslearen iritziaz baliatuz bere testua zuzendu, ebaluatu eta berridatziko du.

## **METODOLOGIA**

### AHOZKO ADIERAZPENA

Errespetua, elkarrizketaren arauak, besteen iritziaren balorazioa... lantzeko asmotan, egunero ahozko adierazpena bultzatuko dugu: sentimenduak, emozioak, nahiak, gustuak, eguneroko bizipenak... Egunero tutoretza saioetan.

Tradiziozko ahozko olerkiak, asmakizunak, ahokorapiloak... Astean behin, ostiraletan hamar minutu.

### TESTU MOTA EZBERDINEN AURKEZPENA

- Egunero zientzietako saioaren zati bat ahozkoa lantzeko erabiliko da.
- Tarte horretan argi izan behar dugu ahozko jardunak duela lehenetsia.
- Saioan landuko diren edukiak astean zehar zientzietan landutakoarekin lotura izango du.
- Taldeko zein bakarkako lana izango da. Norberak dagokion aurkezpena egingo du (mapa kontzeptualak, azalpen testuak, errezeta, menua, ipuina, deskribapenak, erreportaia, albisteak...)

### TALDEKO LANA

- Beraien artean euskara erabiltzeko ahalegina ikusi nahi dugu.
- Hori bai, badakigu batzuk ez dutela nahi bezalako erraztasunik eta **lagunduko diegu**. Saiatzea nahi dugu eta lagunduko diegu ahalegin horretan. Gainera, ahalegin hori ere asko baloratuko dugu.

### Gurekin harremana euskaraz finkatzera begira:

Ikasleekin hizketan ari garenean, eta **ikasleren batek ez badigu euskaraz egiten:** elkarrizketan bertan ahalegina eskatuko diogu (*esan orain euskaraz, ziur badakizula hori euskaraz esaten, lagunduko dizut hori euskaraz esaten*) eta errepikatu arazi egingo diogu. Ahalegina sumatzen badugu **errefortzu positiboak** ere emango dizkiegu (*ikusten, gero eta hobeto egiten duzu, oso pozik nago, azkenaldian beti euskaraz egiten didazu, horrela jarraitzen baduzu...*).

### Beraien artean euskararen erabilera indartzera begira:

Beraien arteko elkarrizketan sartuko gara.

Gure laguntzaz elkarrizketa euskarara bideratzen saiatuko gara. Hasiera batean, modu ahalik eta naturalenean (elkarrizketan parte hartuz) eta beharrezkoa bada modu esplizituan eskatuz: elkarri galderak egin arazi, elkarrizketa moztu eta errepikatzeko eskatu...

Ahalegina ere baloratuko dugu eta errefortzu positiboak emango dizkiegu.

Zenbat eta gehiagotan laguntzen diegun orduan eta errazago egingo dute eta orduan eta naturalagoa irudituko zaie.

### **TXIKILINUX PROGRAMA**

1.ZIKLOKO GELETAN ETA 3. MAILETAN ere egin da. Ondo baloratzen dugu programa, baina irakasleek denbora beharko lukete aplikazioak erabiltzen ikasteko.

### **IRAKURKETA PLANA (1.zikloa)**

**-Irakurtzen ikasi:** Batez ere lehenengo mailan egiten da. Hasieran kontzientzia fonologikoa lantzen da. Horretarako, ondorengo materialak erabiltzen dira: Kinestemak, sortutako txostenak, irakurgaiak, eguneroko irakurketak, hiztegien txartelak.

Banakako irakurketa egiten da.

#### **-Ikasteko irakurri:**

Erabiltzen diren testuak natura eta gizarte zientzietako gaiekin loturikoak dira. Testu mota desberdinak erabiltzen dira, gaiaren arabekoak, hala nola; deskribapenak, errezetak, informazioa testuak, ipuina.

Honekin batera, lexikoa eta irakurmenerako estrategiak lantzen dira.

#### **-Irakurzaletasuna garatu:**

Gelako liburutegia erabiltzen da irakurzaletasuna bultzatzeko.

Beharrezkoa da, gelan dauden liburuak, gelarako aproposak izatea, esaterako 1. Mailarako laburrak eta letra larriz idatziak. Horretarako dauden liburuak berrikusi eta berritu behar dira.

Datorren urtera begira, liburutegira astean behin joateko proposamena egiten da. Baina bertako liburuak ere berriztu beharra daude.

Datorren urterako proposamenak:

Ipuin kontalaria, San Franciskoko liburutegira txangoa.

## **IRAKURKETA PLANA (2. Zikloa)**

### **-Irakurtzen ikasi:**

Banakako irakurketa egiten da.

Egunerokotasunerako irakurketak ere landu egiten dira irakurketak esanguratsuak eta ikasleengandik gertukoak izan daitezen .

### **-Ikasteko irakurri:**

Erabiltzen diren testuak natura eta gizarte zientzietako gaiekin loturikoak dira. Testu mota desberdinak erabiltzen dira, gaiaren araberakoak, hala nola; deskribapenak, errezetak, informazioa testuak, instrukzio testuak , ipuina.

Honekin batera, lexikoa eta irakurmenerako estrategiak lantzen dira.

### **-Irakurzaletasuna garatu:**

Gelako liburutegia erabiltzen da irakurzaletasuna bultzatzeko.

Interneten topatutako berriak , bitxikeriak...ere oso motibagarriak dira testu berriak bilatzen jarraitzeko interesa indartzeko.

Hurrengo ikasturterako **Idazleekin topaketak** jarduerarekin jarraitzea proposatzen da.

## **HOBETZEKO PROPOSAMENA:**

Hobekuntza baino aldaketa izango dugu metodologian. LOMLOErekin lotuta ikas-egoerak hasiko gara prestatzen eta lantzen, Horretarako, formakuntza jasoko dugu bai Berritzegunetik, bai gure BeAtarrari esker.

### **3- IRAKASKUNTZA-JARDUEREN PROGRAMEN EBALUAZIOA**

#### **3.1 – Ohiko irakaskuntza-jardueren programen ebaluazioa**

##### **3.1.1 – Antolaketa eta funtzionamenduaren aspektuak**

### **HAUR HEZKUNTZA**

	<b>Alderdi positiboak</b>	<b>Zailtasunak</b>	<b>Zergatiak</b>	<b>Hobekuntza proposamenak</b>
<b>Tutoretzen banaketa</b>	Zikloa bukatzea posible den neurrian.	Lerro batekin geratzen ari garenez, zailagoa da tutoretzen banaketa egokia bermatzea.	Lehentasunak ezartzea zaila da	Tutoretzen banaketa: -zikloa bukatu -zikloan beti erreferentea egotea.
<b>Tutoretza Plana</b>	Programazioa jarraitu egin da.	Koordinazioa oso zaila askotan.	Irakasle mugikortasunagaitik.	Irakasle berriei funtzionamendua azaltzea.
<b>Ordutegiak</b>	Orokorrean ondo.	Aurten 2 urteko gela bi izan ditugu 5/6ren laguntza izan dugu, beraz oso ondo, zailtasunik ez		Momentu estrategikoetan (sarrera, pardela, jantokira joatean) laguntzak ondo antolatzea
<b>Esklusiben banaketa</b>	Ondo.	Koordinazio hobea beharrezkoa izan da.	Irakasle mugikortasunagaitik.	Era sistematikoan koordinazioak egiten jarraitzea.

<b>Laguntza eta errefortzuen eraginkortasuna</b>	Gela batzuetan egon diren laguntzekin, ekintzak aurrera eramanez ahal izan dira	Kurtsoan sortzen diren beharrianak betetzeko zailtasunak izan ditugu. Irakasle berriak dinamika ezagutzeko laguntzak beharrezkoak dira.	4-5 urteko geletan batez ere: -Ikasleen joan etorri handiak eta -Etorri diren ikasleen ezaugarriek... laguntza handia eskatu dute.	Hiruhilean behin laguntzak berrikustea, orain arte egin diren bezala.
<b>Pertsona bakarreko karguen funtzionamendua</b>	Etapan desberdinetako erreferenteak izatea onuragarria ikusten dugu.	4 eta 5 urteko zikloan irakasle berriak izan dira ea ikasturte osoan zehar.	Eskola ezagutzen duten irakasleak bajaran egon dira.	Definitiboren bat geratzea ziklo batzotzean posiblea izan ezker.
<b>Beste batzuk. Ikuskaritza</b>				

## LEHEN HEZKUNTZA

	Alderdi positiboak	Zailtasunak	Zergatiak	Hobekuntza roposamenak
<b>Tutoretza Plana</b>	<p><b>-ADIMEN EMOZIONALA-</b> 1., 2. 3. MAILETAN</p> <p><b>-BIZIKASI-</b> 4., 5., 6. MAILETAN</p>			
<b>Laguntza eta errefortzuen eraginkortasuna</b>	<p>Ikasturte hasieran jarrita zeuden errefortsuak aparte, ikasturte osoan zehar, beharren arabera, saiatu da erantzuna ematen eskatu egin diren laguntzei.</p> <p>Ikasturte honetan ere, erlijio irakasle baten laguntza ezinbestekoa izan dugu, horrela, gela antolaketa errezagoa izan da batez ere gela kopurutsuetan.</p>	<p>Egia esan, metodologiari dagokionez, hor laguntza eta formakuntza indartzea.</p>	<p>Irakasle berriak etorri dira, eta erreferente gutxi zikloetan izan ditugu. Batez ere 1.zikloan</p>	<p>Irakasle guztien artean (tutore eta espezifikoak) KOORDINAZIO jarraitua bermatzea laguntzak era egokian antolatzeko.</p>

<b>Organo kolegiatuen funtzionamendua</b>	<p>KLAUSTROA- Parte aktiboa izan da eskolako funtzionamenduan eta erabakietan.</p> <p>OOG berriztu egin da eta hauteskundeak egin dira, Jendea bai aurkeztu da, ez nahikorik, baina bai beste urteetan baino gehiago. OOG- deialditan egon dira, eta parte aktiboa izan da eskolako funtzionamenduan eta erabakietan.</p>	<p>OOGko batzorde iraunkorra sortu egin da, baina parte hartzaile oso gutxi etortzen ziren hasieran, baina, azkenego batzarrean OOG kopurutsua izan genuen eta eskertzen da, gero eta inplikazio handiagoa izatea.</p>		<p>Hurrengoetara, saiatuko gara jendea animatzen parte har dezatela.</p>
<b>Pertsona bakarreko karguen funtzionamen.</b>          <b>Ikuskaria</b>	<p>ZUZENDARITZA TALDEA- Zuzendaritza taldea berriztu egin da eta zuzendaritzarako proiektua aurkeztu da. Beraz, hurrengo lau ikasturtetan zuzendaritza egonkorra egongo da.</p> <p>Taldekoak garen aldetik, taldeko lanari, koordinazioari, komunikazioari eta konsensoari ekintzen saiatu gara.</p> <p>Ikuskaria hurbila eta laguntzeko prest</p>	<p>Konpondu beharreko gatazkak murriztu badira ere, zuzendaritza taldearen betebeharra izan da gatazken konponketa bermatzea, bai ikasle zein gurasoen artean</p>		<p>Irteerak eta sarrerak eta horien ordutegiak ere.</p>



### 3.1.2.-Esperientziak, programak eta proiektuak

Aztertutako esparrua	Egoeraren azterketa. eta zergatien laburpena	Hobekuntza eta jarraipenerako prosamenak
<p><b>BIDELAGUNA</b></p> <p>1. Laguntza eta bitartekoak eman ikasleei, batik bat ingurune fisiko edo estimulu egokirik ez durtenei, denbora osagarri bat erabil dezaten beren eskolako atzerapenari aurre egiteko edo hura prebenitzeko.</p> <p>2. Oinarrizko gaitasunen garapena hobetzea; batik bat, irakurketa, gai instrumentalak, lanaren antolaketa eta ikasle-ohituren eskurapena.</p> <p>3. Ikasleek beren gaitasunei buruz dituzten itxaropenak eta ikastetxeak ikasleei buruz dituenak hobetzea.</p>	<p>Landu egin da:</p> <p>Antolaketa, ohitura eta lanaren plangintza eskuratzea: agenda, materialaren antolaketa eta betebeharrak amaitzea.</p> <p>Ikasteko teknika eraginkorrak sendotzea: ideia nagusiko eta datu nabarmenak azpimarratzea.</p> <p>Ikasleen arrakasta handitzea: irakurmena, ulermena eta matematikako logika. Honen hobekuntza beste arloetan isladatzen da.</p> <p>Interneten bidez informazioa bilatzeko eta lanak garatzeko IKTeak erabilera.</p>	<p>1. Erreforzatzen diren arloetan, programazioa hilabetekoa izatea oso ondo baloreatzen da jarduera-ildoak finkatzeko tutoreekin batera.</p> <p>2. Teknologia berrien erabilera ahal den neurrian orokortu.</p> <p>Gelan sortutako gatazken protokoloa HOBETZEA</p> <p>Hurrengo ikasturtean GUGAZ AURRERA erakunderaekin jarraitzea.</p>

<p>4. Familien eta ikastetxeen arteko harremana hobetzea.</p>	<p>Familiekiko koordinazioa eta azken horien inplikazioa bermatzea.</p> <p>Emaitzak hobegoak izan dira.</p> <p>GUGAZ AURRERA erakundearekin aurrera eraman da programa.</p>	
---	---	--

<b>AZTERTUTAKO ESPARRUA ÁMBITO O ASPECTO ANALIZADO</b>	<b>EGOERAREN AZTERKETA. ETA ZERGATIEN LABURPENA ANÁLISIS DE LA SITUACIÓN Y SÍNTESIS DE LAS CAUSAS</b>	<b>HOBEKUNTZA ETA JARRAIPENERAKO PROSAMENAK PROPUESTAS DE MEJORA</b>
<p><b>NEES/HPBko DEPARTAMENTUA</b></p> <p>Departamentutik Heziketa Behar Bereziekiko ikasleentzat pentsatzen dituzten helburuak hauetan oinarritzen dira.</p> <p>Ikasleei ohiko jardueretan era autonomoan jokatzeko laguntzea, bere ahalmenak eta autonomia pertsonalaren bultzatuz.</p> <p>HPBko ikasleentzako garapen egokia posible egiten duten heziketa-esperientziak eskaintzea diziplinartekotasuna eta globaltasuna errespetatzen eta konpetentziak garatzen dituzten metodologiak bitartez.</p>	<p>H.Hn lortutako autonomia maila ikasle bakoitzaren behar espezifikoak dituen arabera izan da. Gero eta txikiagoak diren umeengan aurrerapenak nabarierak izan dira.</p> <p>L.Hn lortutako aurrerapenak ez dira izan programatutako bezalakoak gure ikasleria beharrezkoak diren pautak autonomiaz egiteko ekimenak ez dira oraindik barneratu.</p> <p>H.Hn gela barruan erabilitako laguntza bisuala eta piktogramak inklusioa arintzeko eta komunikazioa lantzeko oso baliogarria izan dira.</p> <p>L.Hn lehen zikloan laguntza bisuala eta material manipulatioa instrumentalak indartzeko erabili dira. Bigarrean eskemak, mapak kontzeptualak, laburpenak eta gaiaren aurreikuspenak talde proiektuetan parte hartzeko erabili dira.</p>	<p>Material bisuala gela osorako orokortu, berdineko eta nagusiekiko komunikazioa arintzeko eta eguneko ekintzak aurkezteko.</p> <p>Bereganako konfidantza finkatu, jarduerak bere intereseei egokituz arrakasta lortzeko.</p> <p>Ebaluaketako probak umeen beharrei egokitu.</p> <p>Astero HPB-ko irakasleekin eta kontsultoreekin koordinaketa saio bat finkatu, eta Berritzegunekoekin hamabostero saio bat informazioa trukatzeko.</p> <p>Hilabetero, gutxienez behin, tutoreak eta PT-ak koordinazio saio bat finkatu gelako programazioa, materiala, denbora eta ebaluaketa adosteko.</p>

### 3.1.3 Prestakuntza eta garapen profesional

#### TITULUA / TITULO: TXIKILINUX (5 URTE)

	1	2	3	4	5	6
<b>Prestakuntza gaien egokitasuna</b> <i>Adecuación de los temas de la formación</i>						X
<b>Partehartzaileen bertaratzea eta inplikazioa</b> <i>Asistencia e implicación de los participantes</i>						X
<b>Saioen egutegi eta ordutegiaren balorazioa</b> <i>Valoración del calendario y horario de las sesiones</i>					X	

Ondorioak	Hobekuntza proposamenak
